



ZoOo

hitz basatia

ekaina - urria

Donostia - San Sebastián, 2010
Cristina Enea - Arteleku - Aquarium

www.cristinaenea.org/zoo

ZoOo kultur antropologia, biologia eta praktika artistikoak bezalako alor ezberdinetatik abiatuta animalia-aren figurari buruzko elkarrizketa proposatzen duen erakusketa egitasmoa da. Hain ikasia nahiz hurbila eta aldeberean arrotza bezain arraroa zaigun unibertso hortara, animalien unibertsoa alegia egindako hurbilketa ariketa da. Helburu horrekin 2009ko udan ospatu zen ZoOoren lehen saioak animalien ikusizko edo irudi-errepresentazioari so egin zion bezala, bigarren jardunaldi hauek aldiz fenomeno akustikoa izango dute abiapuntu, entzumenaren bidez mundu paralelo hau ezagutzeko parada eskainiz. Soinu bakoitza modu jakin batean entzuten eta baliatzen erakutsi diguten jakintza eredu ofizialak gaindituz, hitz eta kantuen eskutik eramaten uzteko gonbidapena da honako hau. Horrelako ariketa batek irekitzen dituen ikuspegi berriek animalien soinu-zko unibertso zabal hori hobe aditzen, nahiz ez konprenitu, erakutsiko digute.

ZoOo Cristina Enea fundazioak sortutako egitasmoa da, Donostiako Arteleku arte garaikideko zentruko Audiolab sailarekin eta Vitoria-Gasteizko Amari-ka Proiektuarekin elkarlanean garatutakoa eta Donostiako Aquariumaren parte hartzearekin.

Bill Burns
Marcel Broodthaers
Andreas Wutz
Francisco López
Yannick Dauby
Slavek Kwi
Xabier Erkizia
Nader Koochaki
Miguel Álvarez -
Fernández

Isabel Escudero
Vanessa Lemm
Jorge Riechmman
Olatz González
Garbiñe Larrea
Iñaki Seguro-
la
Alessandro Bosetti
Jana Winderen
Kim Cascone
...



sarpera

Mendebaldeko pentsamenduarentzat hizkuntzaren jabegoak gizakiaren eta beste izakien arteko banaketa zurrana suposatu du. Gizabanakoa unibertsoaren zentru bezala aurkezteko helburuarekin filosofia modernoak barnetasuna (kontzientzia eta arima modura) soilik gizakiaren ezaugarri gisara aurkeztu digu. Ondorioz, hainbat mendetan zehar animalien komunikazioari buruzko jakintzak hizkera hauek soilik funtzio biologikoen gidari adierazkor izatera mugatu ditu.

Baina unibertsoa kulturaren eta naturaren artean banatzen duen pentsakera eratze soziala besterik ez da, gure esperientziaren adierazpen zuzen eta bapatekoarekin bateragarria ez dena gainera: Beti izan dira eta izango dira animaliekin, paisaiarekin edo naturarekin ditugun erlazioak ulertzeko beste moduak.

Hainbestean gizakiak teknologikoki eta sinbolikoki okupatutako eta eskuhartutako mundu garaikide hau, animaliak entzuten ahortzi duen mundua da, eta ondorioz gure zentzumenek oraindik ere beste mundu animalia horrekin gordetzen dituen lotura estuak ahanzteko joera duena.

Gure begiradak eta entzumenak animalitasunaren eta gizakitasunaren arteko tentsioari adi jartzeko, bide hori bi norabideetan eginez; bestelako erritmo eta denborak onartzeko; animaliak gobernatzeko eta sailkatzeko sortzen ditugun gailuak zalantzan jartzeko; bizilagun animalia entzuteko beste moduak ezagutzeko... ZoOok gure ingurunearekin mantentzen ditugun erlazioak eta gure gizaki izaeraren etorkizuna bera birpentsatzeko aukera eskaini nahi du.

EKAINA - IRAILA

ERAKUSKETA

Ekaina

17

Iraila

13

CRISTINA
ENEA

ZoOo
Hitz Basatia

Artista ezberdinen lanak biltzen dituen erakusketa monografikoa. Bill Burns, Andreas Wutz, Marcel Broodthaers eta besteak beste Francisco López, Yannick Dauby, Nader Koochaki, Slavek Kwi, Xabier Erkizia eta Nader Koochakiren lanekin osaturiko soinu instalazioa.



Erakusketa orokorrak, animalien hizkerenganako hurbilketa ezberdinak proposatzen dituzten ikerlanak biltzen dituen espazio dokumental bat du. Zinema, musika, zientzi alorreko ikerketak edo giza hizkuntza bera abiapuntu harturik, animalien hizkeren eta gure ulermenen arteko ibilbidea osatzen du espazio honek.

Erakusketa ikusentzunezko eduki, idatzi, soinuuzko grabaketa eta kontsultarako bibliografiarekin osatu da.

SAFETY GEAR FOR SMALL ANIMALS

Bill Burns

Reginan (Kanada, 1957) jaiotako artista honek Vancouver eta London artean egin izan du lan bere ibilbidean zehar. Egun Toronton bizi da. Bere lana batez ere eskultura, argazki, marrazki eta liburuz osaturik dago, beti ere animalien munduari toki berezi bat eskainiz. Bere bibliografia bitxian, analgesikoen eta oinazearen inguruko antologiak, kaleko animaliei ihes egiten laguntzeko manualak edo txorientzako irrati estazioak sortzeko muntai argibideak topa daitezke.

ZoOon, bere azken lanak erakutsiko ditu Burnsek, euskarri ezberdinetan. Hauen artean "How to Help Animals Escape from Natural History" (Nola lagundu animaliei Historia Naturaletik ihes egiten) argazki saila edo "Animal Safety" (Segurtasun Animalia) egitasmoaosatzen duten objektu eta marrazki harrigarriak. Umore eta apaltasun haundiz, segurtasunaren, salbazioaren eta babesaren hizkera eta lanabesak animalien egoerara itzultzen ditu Burnsek; Mundua salbatzeko gogoak, salbazioaren kontzeptua bera eta bidenabar salbatua izatearena ere, birpentsatzera behartzen gaituela erakusten digu.



www.safetygearforsmallanimals.com

SEBEOKEN KANTUA

Andreas Wutz

ZoOoSoiua zine zikloaren hirugarren saioa (ikus egitaraua) aurkezteaz gain, Bartzelonan bizi den baina jatorriz Munich hiriko Andreas Wutz artistak bideo lan bat ere prestatu du erakusketarako. Bideo honek, zine emanaldia antolatzeraz bultzatzen duten kezka berberak ditu oinarri. Hau da, espezie ezberdinen arteko komunikazioaren gradu ezberdinak, lengoai hauek ematen diren testuinguruak behatzeko interesa edo arrazionaltasunaren mugak.



Animalien inguruko komunikazioaren inguruko ikerketetan aitzindaria izan zen Thomak Sebeok (1920-2001) linguistaren lanetan oinarriturik, espreski erakusketa honetarako sortua izan den pieza honek, katu bat bere ahoskerekin aurrez aurre jartzen du. Hala ere, lan hau ez da esperimendu zientifiko baten dokumentu soilak. Sebeokek Hungariatik Estatu Batuetara ihes egin behar izan zuen, etorkin askok bezala bere ama hizkuntza atzean utzita. Hain zuzen bideo honek, erbesteratzearen eta bere komunikazioaren inguruko ikerketen arteko zubi bat eraiki nahi du.

www.tortoisebox.org/andreaswutz

ENTZUN ANIMALIA

Kanale anitzeko soinu instalazioa.
Zenbait artisten grabaketa, konposizio eta soinuazko piezekin:

Francisco López
Yannick Dauby
Team of Jeremy Roht
Slavek Kwi
Xabier Erkizia
Nader Koochaki

eta beste zenbait animalia.

Aukeraketa, edizioa eta masterizazioa: Xabier Erkizia

Gizakiaren eta animaliaaren arteko nahasketa hibridoa, mundu zabaleko kultura guztietan presente dagoen arketipoa da. Baina mitologiaren bidez iritsi zaizkigun gizakiak sortutako lehen errepresentazioetatik, zinearen eta aisaldiaren industriak sustaturiko irudikapen garaikidetaraino, arrazionalaren eta instintiboaren, hizkuntzaren eta uluaren, edo ederra eta piztiaren arteko banaketa hori oraindik ezezagun eta ezezagun egiten zaigu.

Instalazio hau osatzen duten grabaketek, hain zuzen muga estu horren gainean egiten dute dantza entzumenaren bidez, beharbada oraindik gordetzen dugun arrasto eta zentzumen animaliena dela gogoraraziz. Musika animaliak, giza orroak, urazpiko hizkuntzak eta bertzelako soinuak, gure belarrientzako ezezagunak direnak baina ezustean gertukoak egiten zaizkigunak.




INTERVIEW WITH A CAT

Marcel Broodthaers

Marcel Broodthaers (1924-1976) bigarren mundu gerrate osteko artista garrantzitsuenetakoa izan zen, bereziki Europako bigarren abangoardien testuinguruan. Mallarmé eta Magritten miresle eta jarraitzaile, bere ibilbidean material eta euskarri ezberdinak batzen ditu: Naturatik ateratako elementuetatik hasi –ikatza, muskuiluak eta arraultze-oskolak- eta filma nahiz ekintzetara iritsi arte. 1968an, kultur industriaren sorrera eta artearen autonomiaren galerak sortutako kezka eta eztabaiden erdian, "Arte Modernoaren Museoa, Arranoen Departamentua" bezala izendatu zuen fikziozko museoa zabaltzeko Belgikan.

Erakusketak aurkezten duen "Interview with a cat" (Katu bati elkarrizketa) izeneko lanak, arte garaikideak publikoarekin mantentzen dituen harreman paradoxikoak agerian jartzen dizkigu. 1970ean Düsseldorfeko grabaturiko soinu pieza honek, animalia batek guzti hontaz zein iritzi izan dezaken argitzen digu.

www.ubu.com/sound/broodthaers.html
www.en.wikipedia.org/wiki/Marcel_Broodthaers



EKAINA

Osteguna

17

19.00

CRISTINA
ENE

*Aurkezpen performance-a.
"Donostiarako txori-kantuak"*

Bill Burns

*Safety Gear eta Bird Calls proiektuen
bidez, Bill-ek, artista bihurtzeko arrazoiak
eta animaliekin duen harreman artistikoa
nolakoak diren kontatzen digu. Irakurraldia
amaitzerakoan txori-kantak erabiltzen
erakutsiko digu, Donostiarako txori-kantak
deituriko egitasmoaren bidez.*

Ikuskizunaren ondotik erakusketaren
irekiera ekitaldia ospatuko da.

Ostirala

18

19.00

CRISTINA
ENE

Animalia- Zinema

ZoOo Sonido

Andreas Wutz

*ZoOoSoinua izeneko zinema egitarau honek, animalien
hizkuntzaren eta komunikazioaren esparruak aztertzen
dituzten zenbait film dokumental eta artistiko biltzen
ditu. Badira hizkuntza sortugabeak, ikasi beharrekoak
edo gizakiaren kasuan bezala, bien arteko nahasketan
oinarritutakoak. Soilik laguntza teknikoei esker ulertu
ditzakegun zeinuak ere badaude, baita igarkizun modura
gelditzen diren mezuak ere, bereziki testuingurua ulertzen
ez badugu. Eta askotan ez gara horretarako ere gai. Eta
igaro ezin dugun muga batera iristen gara. Horregatik
askotan zientzia linguistikoek eta etiologikoek, eremu
etikoari, lurraldekoari edo politikoari dagozkien galderen
bidez egiten dute topo. Zinema programa honetan bezala.*

Dawn Chorus

Marcus Coates

*Erresuma Batua 2007 - 15 m
(14 kanaleko bideo-instalazio bateko
zatiak)*

Sprache der Bienen

Erleen hizkuntza

Karl von Frisch

Alemania 1926 - 8 m

Mamori

Karl Lemieux & Francisco López

Kanada/Espainia 2010 2010 - 8 m

Bogman Palmjaguar

Luke Fowler

Erresuma Batua 2007 - 30 m

*Elektroortung und -kommunikation
beim Tapirfisch // Elefante arrainaren
komunikazioa eta sonar elektrikoa*

Wolfgang Heinrich & Klaus Dornfeldt

Alemania 1986 - 9 m

Ecriture du mouvement

Mugimenduaren idazketa

Jean Painlevé

Frantzia 1947 - 10 m



Osteguna

24

19.30

CRISTINA
ENEA

Gorrión, Migajas...Poesia Errezitaldia

Isabel Escudero

Isabel Escudero itzuli da -oraingoan txorien hegaldian eta ahots librean-, berriro ere bihotz amankomunaren kexa eta arrazoia abestera, poesia herrikoi anonimoaren erritmoaren taupada jarraituz. Poetarik gabeko poesia. Errezitaldi hau, poesia idatzia -kultua eta literarioa- ohizko lengoaira, bizirik dagoen ahots eta abestira, itzultzeko egiten ari den ahaleginaren beste adibide bat baino ez da. (Honen erakusle dira Agustin Garcia Calvo poeta eta pentsalariarekin bikotean egin dituen hainbat eta hainbat errezitaldi).

ZoOo bezalako kontextu batean, ezin genuen poesian (lengoiaren kasu berezi bezala ulertuta) erreparatu gabe gelditu. Isabel poeta, idazle eta zinema kritikariak, bere errezitaldia Gorrión,migajas... bere liburuko poemetan oinarrituko du, Marisa Pons txistulariaren txioen laguntzarekin. Saioa arrazonamendu anti-humanista labur batekin irekiko du: "gauzek hitzegiten dute"

ABUZZTUA

LANTEGIA 9 -13 ARTELEKU

Antolatzaileak:
Arteleku – Gipuzkoako
Foru Aldundia

Entzute Animalia

Slavek Kwi a.k.a. Artificial Memory Trace

Lantegi honek animalien ahotsen unibertsoa ikuspegi ezberdinetatik esploratu nahi du: animalien ahotsak, keinuak eta hauen asoziazioak, zeinuak, komunikazioak, hiztegiak, transferentziak, interpretazioak...

Hortarako zenbait ariketa proposatuko dira, halanola: landa grabaketa saioak (ordutegi ezberdinetan, parte hartzaileen aukeren arabera), entzumenaren bidez ingurune ugariren esplorazioak, analisi, ikerketa eta eztabaidarako baliatuko diren materialen entzunaldiak...

*Izena emateko epea: **Uztailak 29**. Bidali zure datu pertsonalak zure CVa eta motibazio eskutitzarekin batera arteleku@gipuzkoa.net helbidera. Parte hartzaile bakoitzak audio ediziorako softwarea kargatua duen ordenagailu eramangarria eta grabatzailea nahiz mikrofonia ekarri beharko du beraiekin. Artelekuk bi grabatzaile eta zenbait mikrofono jarriko ditu eskura.*



Slavek Kwiren zenbait ohar

"Pertzepzioaren fenomenoaren errealitatearekin mantentzen ditugun erlazioen oinarritzko determinante bezala ulertzean jartzen dut arreta. Hain da arraroa errealitatearen natura, batzuetan, esistitzen dela imajinatzea ere zaila egiten dela..."

Azken 30 urteak soinu inguruneekin eta "soinuzko margoak" deitzen ditudan gertakizunekin liluratuta pasa ditut. Audio-egoera konplexu hauek nagusiki leku jakinetan egindako lanak eta landa grabaketak dituzte oinarri, bereziki tropikoko urazpi, baso eta ekosistemeei arreta eskainiz. Ondorio gisara "belarrientzako zinema" modukoak bihurtzen diren kanale ugariko soinulanak eta dimentsio askotako soinu instalazioak sortzen ditut.

Slavek Kwi

Slavek Kwi soinu artista, konposatzailea eta ikerlaria da. 90. hamarkadatik Artificial Memory Trace ezizena erabili du, eta izen honekin argitaratu ditu bere konposizioak ezagun egin dituzten diskak eta nazioarteko bidumetarako ekarpenak. Eric La Casa bezalako alor bereko beste artistekin ere egin izan du lan, elkarlan hauen bidez Bourgeseko Musika Elektroakustikaren jaialdia bezalako lehiaketetan sariak jasoz. Aldiberean, haur autistei eta ikasteko zailtasunak dituztenei zuzendutako soinu tailerrak egiten ditu. Esperientzia hauek nagusiki entzumen ariketen eta behaketaren bidez sorkuntzarako estimuluak sustatzea dute helburu.

Slavek Kwi Txekoslovakia ohian jaio zen, 14 urte pasa ditu Belgikan bizitzen eta 2000. urtetik Irlandan bizi da.

www.artificialmemorytrace.com

IRAILA

MINTEGIA

15

16

17

19.00

CRISTINA
ENEÀ

Hitz Basatia

Koordinazioa: Olatz González.

"ZoOo: hizkera basatia" egitasmoaren barruan, animaliok nola pentsatzen dugun, nola sentitzen dugun eta elkarrekin nola erlazionatzen garen aztertzeko aukera emango digun mintegia antolatu dugu. Animalien ahotsak entzun araztea da helburua, misterioitsuak izan arren ulertezinak ez diren hots horiek itzultzeko era ezberdinak bilduz. Animaliekin komunikazioa badagoela sinetsirik (hobeto esanda, animalia izateko era ezberdinen artean komunikazioa sortzen dela sinetsirik), filosofiaren, musikaren, literaturaren edo kazetaritzaren ikuspegitik animaliairen gaiari helduko diogu mintegi honetan.

Irailak 15, asteazkena

Vanessa Lemm

Jorge Riechmman

Irailak 16, osteguna

Miguel Álvarez – Fernández

*** Alessandro Bosetti**

Irailak 17, ostirala

Garbiñe Larrea

Iñaki Seguro

**Ertz Bertze Musiken jaialdiarekin elkarlanean antolaturiko kontzertua.*

URRIA

MIKROJAIALDIA

1 - 5

ARTELEKU

AQUARIUM

Antolatzaileak:

Arteleku – Gipuzkoako

Foru Aldundia

Aquariumaren

laguntzarekin

Hydrophonia

Artearen alorreko, bereziki soinu artea deritzon hortako, eta zientziaren alorreko ekarpenekin osatzen den urazpiko soinu paisaiari eskainitako mikrojaialdia da Hydrophonia. Mintegi, kanale anitzeko difusio kontzertu eta hitzaldiak batzen dituen ekitaldi egitarau honek, soilik azaletik ezagutzen dugun baina benetan arrotz zaigun mundu hortara hurbilketa proposatzen du. Aldiberean, begiz ikusi ezin dugun eta bertan fisikoki egotea debekatzen digun paisai horri arreta jartzeak, nahitaez ikusizkoaren gailentasunarekiko haustura ariketa bat suposatzen du, entzumenaren bidez, imajinazioari leiho bat irekitzen diona. "Retinaren aurkako soinu" moduko bat entzun arte.

Kim Cascone soinu artista iparramerikarrarekin elkarlanean antolatutako ekitaldia.

Informazio gehiagorako ikus www.arteleku.net

Vanessa Lemm

Filosofoa, New School for Social Research (AEB) zentruko doktorea eta Diego Portales Humanitateen Institutoko (Txile) ikertzailea da. Bere ikerketaren ildo nagusiak egungo teoria politiko modernoa, Friedrich Nietzscheren pentsamendua eta animaliak filosofiaren historian izan duen lekua direla esan daiteke. Hain zuzen bere liburu ezagunena "Nietzsche's Animal Philosophy: Culture, Politics and the Animality of the Human Being" (Nueva York: Fordham University Press, 2009) da. Bere azken ikerketa proiektuak Biopolitika eta gizateriaren etorkizuna ditu hizpide.

Jorge Riechmann

JJorge Riechmann (Madrid, 1962), literatura itzultzaile, poeta eta filosofoa da. Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan Zientzia politikoetan doktorea, Bartzelonako Unibertsitatean filosofia moral ikasgaiko irakasle titularra da eta Ingurumenaren aldeko Zientzialarien Elkarteko (CIMA) lehendakariordea ere bai. 1987an IIº Hiperión saria irabazi zuenetik, poemario ezberdinak argitaratu ditu. Bere azken argitalpenen artean aipatzekoak dira filosofia ekologikoari buruzko Biomímesis liburua (Los libros de la catarata, 2006), René Char-en poesia funtsezkoaren itzulpena (Galaxia Gutemberg, 2005), edo bere lan egunkaria, Bailar sobre una baldosa.

Miguel Álvarez-Fernández

Bere soinu-artista jarduera sormen-eremu horri buruzko gogoeta estetikoarekin konbinatzen du. Oviedoko Unibertsitateko Musikologia atalean edo Berlingo Unibertsitate Teknikoaren Musika Elektronikoaren estudioan irakasle lanak bete ditu. Soinu-artearen alorrean egindako ikerketak nazioarteko foro ugarian zabaldu ditu, besteak beste, In-Sonora (Madril) edo Interzone (Serbia) bezalako jaialditan. Bere artikulua nazioarteko katalogo eta argitalpen ugarian agertu dira eta, baita, beste zenbait aldizkaritan ere, horien artean, ArteContexto, Sonic Ideas, Future Music edo HZ Journal aldizkarietan. Radio Clásica irratiiko irrati-arteri, musika elektroakustikoari eta soinu-arteari eskainitako Ars Sonora irrati saioko zuzendaria eta aurkezlea da.

Alessandro Bosetti

Milanen jaioetako musika konposatzaile eta soinu-artista. Hitz esanen musikaltasuna eta ahozko komunikazioaren ezohiko alderdiak lantzen ditu. Bere lanak antropologiaren eta soinu konposizio esperimentalen arteko lerroan mugitzen dira. Sarritan, bere konposizioek landa-grabaketak eta elkarrizketak izaten dituzte oinarri, gero hauei, gaitasun haundiz collage teknikak, elementu elektroakustikoak eta bestelako manipulazio digitalak nahasteko. Azken aldian Mendebaldeko Afrika, Txina, Taiwan, Holanda, Eskandinavia, Estatu Batuak, Alemania eta Italia izan ditu bizi eta lantoki.

Garbiñe Larrea

Garbiñe Larreak (Urnieta, 1976), Zuzenbidean lizentziatu zen arren, irakaskuntza du ofizio gaur egun. Afizio berriz kazetaritza izan du urtetan: Herri Irratian aritutakoa da, gaur egun Koska Irratian kolaboratzaile dugu eta blogosferako kide ere bai. Azken honetan (www.zakarrikez.nireblog.com) zaldi, asto eta ahari proben inguruko kronikak idatzi ditu, izan ere oso gertutik, familiarik, datorkio mundu horren ezagutza.

Iñaki Segurola

Iñaki Segurola (Azpeitia, 1962) filologoa eta hiztegiilea da (Orotariko Euskal Hiztegia; Euskal Hiztegi Etimologikoa), eta industria kulturalarentzat, baita idazle eta irratiiko sermoilari ere. Ez dauka ideiarik ere animaliei buruz, eta ideiarik ez edukitze horrexek ematen dio konfiantza pixkat animalien gainean -eta azpian- ahalik eta modu garbienean jarduteko.

ZoOok gomendatzen du:

PAISAIA IDEIA GISA: PROIEKTUAK ETA PROIEKZIOAK, 1960-1980

EKAINAREN 10ETIK IRAILAREN 25ERA

Koldo Mitxelena Kulturunea Erakustaretoa

INTERNET

www.cristinaenea.org/zooo

www.arteleku.net

www.amarika.org

www.gipuzkoakultura.net

LOTURIKO ARGITALPENAK

Arteleku – Gipuzkoako Foru Aldundia

ZE HAR #67

Arteleku zentruak argitaratzen duen ZE HAR aldizkariaren 67. alea paisaiari eskainitako ale monografikoa izango da. www.arteleku.net

HOTS! Soinu Paisai irratia

Online irrati honek ZoOo ekitaldi zikloak irauten duen hilabetetan, animalien hotsei buruzko zenbait podcast argitaratuko ditu. www.hots-radio.info

KM Kulturunea – Gipuzkoako Foru Aldundia

“Paisaia ideia gisa. Proiektuak eta proiektzioak: 1960-80” Koldo Mitxelena Kulturuneko Erakusketaretoko erakusketaren katalogoa.

HELBIDEAK

Cristina Eneako Ingurumen Baliabideen Zentrua

Mandasko Dukearen pasealekua, 66. 20012 Donostia-San Sebastián

www.cristinaenea.org

Arteleku

Kristobaldegi 14. 20014 Donostia-San Sebastián.

www.arteleku.net

Koldo Mitxelena Kulturunea Erakustaretoa

Urdaneta 9. 2006 Donostia-San Sebastián.

kmk.gipuzkoakultura.net/

Aquarium

C/ General Echagüe, 15

Donostia – San Sebastián

Antolatzen dute:



audiolab



Laguntzaileak:

Proyecto
Amarika
Proiektua



Patronoak dira:



Cristina Eneako Ingurumen
Baliabideen Zentrua

Mandasko Dukearen pasealekua 66
20012 – Donostia – San Sebastián

Telf: 943 890 767

cristinaenea@donostia.org

Astehelenetik ostiralera: **9:30-13:30**

15:00-19:00

Igande eta jaiegunetan : **10:00-13:30**

Oier Etxeberriaren egitasmoa,
Xabier Erkizia eta Olatz Gonzalezekin
elkarlanean.

